

EUROPA HEGO MENDEBALDEKO LURRALDEEN ARTEKO LANKIDETZA PROGRAMA (SUDOE)

SUD'EAU egitasmo bat da; zehazki, "Europa Hego-mendebaldeko Uren eta Ibaien Tokiko Kudeaketa Parte-hartzailea" deritzon egitasmoa, eta Europa Hego Mendebaldeko Lurraldeen arteko Lankidetzarako Programa Eragilearen barruan dago (PO SUDOE). Programaren lehentasuna da politikak hobetzea eta iraunkortasunez jokatzeko, esparru horretako ingurumena eta natur ingurunea babesteko eta zaintzeko.

SUD'EAU egitasmoaren abiapuntuak Urari buruzko Esparru Zuzentarauaren gogoeta nagusiak eta ardatzak dira:

- ingurumenari begira, uraren eta ibaien egoera ekologiko ona lortu nahi du;
- ekonomiari begira, uraren erabilera iraunkorra ziurtatu nahi du, kosteak berreskuratuz eta eskaria kudeatuz; eta
- gizarteari begira; helburua da herritarrek uraren planifikazioan eta kudeaketan parte har dezaten sustatzea.

Egitasmoaren helburua da tokiko esperientzia erakusleak abian jartzea, esperientzia horiek uraren kudeaketa iraunkorrerako eraberritzea.

duzko jardunbide edo praktika onak izan daitezten. Esperientziok gauzatzeko, herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraziko dira, kudeaketa iraunkorrerako neurrien aplikazioa ikastea sustatzeko; horrela, aukera izanen da esperientzia horiek Europako beste eskualde batzuetan aplikatzeko.



AIMRD
Asociación Ibérica
de Municipios Ribereños del Duero
Associação Ibérica
de Municípios Ribeirinhos do Douro



**Agència Catalana
de l'Aigua**



EPTB Garonne
Syndicat Mixte d'Etudes et
d'Aménagement de la Garonne



**FUNDACIÓN
Centro de Recursos
Ambientales de Navarra**



CIMA
CENTRO DE INVESTIGACIÓN
DEL MEDIO AMBIENTE
CONSEJERÍA DE MEDIO AMBIENTE
GOBIERNO DE CANTABRIA



Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa. (CRANA)

www.crana.org
agua@crana.org

Kataluniako Ur Agentzia. (ACA)

www.gencat.cat
acaparticipacion@gencat.cat

Ingurumeneko Ikerketa Zentroa. (CIMA)

www.medioambientecantabria.com
cima@medioambientecantabria.com

Syndicat mixte d'études et d'aménagement de la Garonne. (SMEAG)

www.eptb-garonne.fr
smeag@eptb-garonne.fr

Asociación Ibérica de Municipios Ribereños del Duero. (AIMRD)

www.aimrd.com
aimrd@lagunadeduero.org

Câmara Municipal de Penafiel.

www.cm-penafiel.pt
penafiel@cm-penafiel.pt

www.sudeau.eu



'SUD'EAU' EGITASMO

Europa Hego-mendebaldeko
Uren eta Ibaien Tokiko
Kudeaketa Parte-hartzailea





EGITASMOA: BAZKIDEAK, AURREKONTUA ETA IRAUPENA

Proiektua bi urtez eginen da, 2009ko apiriletik 2011ko martxora arte. Inbertsioa hauxe da: 1.596.037,00 € eta Europako FEDER funtsek % 75 finantzatu dute.

Hona hemen proiektuko bazkideak:

Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa (CRANA). Nafarroa, Espainia.

Irabazi asmorik gabeko fundazioa da, 2003an sortua, Nafarroako Gobernu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikia.

Ingurumen arloko kultura berria eraikitzeko konpromisoa du, bai eta nafar gizarteak iraunkortasunerantz aurrera jotzeko konpromisoa ere.

SUD'EAU egitasmoaren onuradun nagusia da eta, besteak beste, egitasmoaren administrazio eta finantza kudeaketaz arduratuko da, eta egitasmoaren koordinaketa orokorraz ere bai.

Kataluniako Ur Agentzia (ACA). Katalunia, Espainia.

Uraren Ur Agentzia Kataluniako Generalitatearen enpresa publiko bat da, Ingurumen eta Etxebizitza Sailari atxikia; 1998an sortu zen, Kataluniako administrazio hidraulikoaz arduratzeko. Generalitatearen ur politikaren gaineko ardura duna da, eta politika horrek Urari buruzko Esparru Zuzentzaria du oinarri. Agentziak uraren ziklo integrala kudeatu eta planifikatzen du, ur-sistema guztiak bere osoan bilduta; hau da, ekosistema guztien oreka kontuan hartuta.

Ingurumeneko Ikerketa Zentroa (CIMA). Kantabria, Espainia.

Kantabriako Gobernu Ingurumen Kontseilariatzaren mendean dagoen erakunde autonomoa da. 1991n sortu zen eta, bere gain hartuak dituen alorren artean, hauexek daude: airearen, uraren eta lurzoruen kalitatea aztertzea eta, era be-

rean, ingurumenari buruzko argibide, heziketa eta parte-hartzea.

Syndicat Mixte d'études et d'aménagement de la Garonne (SMEAG). Akitaia. Midi-Pyrénées. Frantzia.

SMEAG 1984an sortu zen, Garona Ibar osoan batera jokatzeko beharrak eraginda. Erakundeak bi erregio (Akitaia eta Midi-Pyrénées) eta lau departamentu (Gironde, Lot-et-Garonne, Tarn eta Garonne, eta Garonne Garaia) biltzen ditu. Hitzarmenerako egitura politikoa da, 16 kide dituen, eta hamabi lagunez osaturiko zerbitzu teknikoa du. Hona hemen haren helburu nagusiak: ur baliabideen plangintza orokorra, ur ekosistemen kalitatea eta mugaz gaindiko lankidetzak.

Asociación Ibérica de Municipios Ribereños del Duero. AIMRD. Gaztela eta Leon, eta Portugal Erdialdea. Espainia-Portugal.

Irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 1994an sortutakoa, eta Espainiako eta Portugalgo 51 udalez osatutakoa. Halaber, bi bazkide laguntzaile daude; horietako bat, Duero Konfederazio Hidrografikoa. Espainia eta Portugal arteko lankidetzak erakunde bat, Duero ibaiaren lurraldeari dagokionez, eta haren helburuak dira Duero ibaiaren lurraldea alde guztietatik begira gara dadin sustatzea, eta ibaiaren ekologia eta ingurumena zaintzea, sortzen denetik itsasoratzen den arte.

Câmara Municipal de Penafiel. Portugal.

Câmara Municipal de Penafiel izaera publikoa duen erakunde bat da, eta haren eginkizun nagusia interes publikoa zaintzea da. Penafielgo Udalerria Iparraldean (NUT II) eta Tâmega (NUT III) sartua dago, eta 38 freguesiatan zatiturik dago (udalerriaren administrazio banaketak); 72.129 biztanle ditu eta 212,2 km²-ko luze-zabalera.

Penafiel funtsean landa-udalerria da (nekazaritza/oihangintza), eta turismo gune nabarmena ere bai. Gauza baliogarri asko ditu: adibidez, azpiegiturak, natur ondarea, paisaia eta gastronomia.

EKINTZA NAGUSIAK

1- URAREN JARDUNBIDE ONAK IDENTIFIKATzea.

Datu Base bat sortu eta garatuko da tokiko ur kudeaketan dauden jardunbide onak inbertariatzeko, Urari buruzko Esparru Zuzentzariaren irizpideekin bat.

Datu basea sortzearen ondorioz, Metodologia Gida bat landuko da hainbat arlotako jardunbide onak biltzeko. Hona hemen arloak: uraren erabilera iraunkorra, ibai-lurraldearen kudeaketa eta herritarren parte-hartze eraginkorra.

2- URAREN ETA IBAIEN KUDEAKETAREN INGURUKO ERE-DUZKO ESPERIENTZIAK EZARTzea.

Egitasmoaren ekintza zehatz horren barruan, Ereduzko eta Tokiko Esperientziak egiten saiatuko gara bai Uraren Erabilera Iraunkorrari loturik (aurrezpena eta eraginkortasuna) bai Ibai-lurraldearen kudeaketari loturik. Horretarako, Erakunde bazkideek aukeraturiko udalerrietan hainbat esperientzia egingen dira ur-eskariaren kudeaketan, tokiko entitateentzako aholkularitza-zerbitzuan, ibai-lurraldearen kudeaketan, leheneratze kontuetan, etab. Esperientziak eta haien metodologia Gida batean bilduko dira, esperientzia horiek Europako beste eskualde batzuetan ezartzeko.

3- HERRITARREK PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK / ESPARRUAK, PLAN HIDROLOGIKOETAN NEURRIAK EZARTZEKO ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEKO.

Herritarren parte-hartzea eta informazio-gardentasuna funtsezkoak dira erabakiak hartzerakoan, Urari buruzko esparru Zuzentzariak azpimarratzen duenez. Parte-hartzeak, gainera, aukera ematen du herritarren artean uraren gaineko ingurumen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa zabaltzeko. Hori dela eta, egitasmoak tokiko ur kudeaketaren inguruko 20 esperientzia garatu nahi ditu, guztiak ere ereduak herritarren parte-hartzeari dagokionez, betiere Nafarroan, Kantabrian, Katalunian, Akitanian, Midi-Pyrénées, Gaztela eta Leonen, eta Porto-Penafiel eskualdean. Lan hori abiapuntu harturik, Txosten-Gida bat landuko da; helburua izanen da herritarren parte-hartze eraginkorrerako tresnak biltzea, Europar Batasuneko uren egoera ona lortzera bideratutako neurriak ezartzeko.

EUROPA HEGO-MENDEBALDEKO UREN ETA IBAIEN TOKIKO KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA PARTE-HARTZAILEA

"SUD'EAU" egitasmoaren helburu estrategikoa da metodologiak berritu, esperimentatu, baliozkotu eta hedatzea, tokiko eta eskualdeko ekimen bitartez, urari buruzko kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea sustatzeko, betiere urari buruzko Esparru Zuzentzariaren aplikazioarekin bat.

Hona hemen helburu zehatzak:

- Europako, tokiko eta eskualdeko Jardunbide Onak identifikatu, garatu eta hedatzea, uraren eta ibaien kudeaketa iraunkorraren inguruan.
- Ereduzko Esperientziak identifikatu, garatu eta hedatzea, uraren eta ibaien tokiko kudeaketa iraunkorraren inguruan.
- Azpiarro guztietan, herritarrek eraginkortasunez parte hartzeko prozesuak / esparruak garatu eta hedatzea, eta uraren kudeaketa iraunkorra bultzatzeko sare bat sortzea.